

1. Jarduera (ikastalde osoa)


Irudia identifikatzea

- Irudi hori argazkia, margolan baten erreprodukzioa ala filma baten afixa ote da?
- Zer da irudi horretan irudikatua dena? Nor da egilea? Noizkoa da?

Oroitu

Irudi bat deskribatu aitzin, erran ezazu:

- zer irudi **mota** den (argazki, margolan, marrazki,...)
- haren **egilea**
- irudiaren **gaia**
- egina izan den **data**



Vincent Van Gogh, *Portrait de l'artiste*, (1889)

2. Jarduera (taldeka)

Hiztegi zehatza erabiltzea

- Bi taldetan emanik, talde bakoitzak irudi bat deskribatuko du, hitzak ondoko zerrendetan hautatuz.



a- arbel beltza- mahaiak- lehengoko klase bat- esku altxatuak- kadirak- maisu bat- afixak- eskuak bizkar gibelean- ikasle mahai- maistra bat

b- ikusi- hauteman- ohartu- atzeman- aurkitu- agertu- begiztatu- bereizi- ezberdindu- sumatu- antzeman- konturatu- agerian izan- nabaritu

- Zuen hitzez osa ezazu eta zure irudia beste taldeari deskriba iezaiozu

Oroitu

Hitz **zehatzak** eta **sinonimoak** erabil itzazu **ikusi** aditza ez errepikatzeko.

3. Jarduera (ikastalde osoa)

Deskribapena ordenatzea

● Erranaldiak ordena itzazu.

a- Bigarren planoan, etxeak elkarren ondoan diren herri bat ikusten da.

b- Landaretzaz estaliak diren mendi kasko borobilek gibleko-planoa betetzen dute.

c- Argazkian, mahatsondo arras ongi lerrokatuak ageri dira lehen planoan.



Oroit

Zure deskribapena **antola** ezazu, horretarako **toki antolatzaileak** erabiliz: lehen planoan, eskuinean, ezkerrean, gainean, behean, erdian,...

Irudi bat deskribatzea (taldeka)

● Margolan bat hauta ezazu, izendatu gabe eta deskriba. Ea, besteez atzematen duten zeinez mintzo zaren!

(Ez ahantz sinonimoak eta toki antolatzaileak erabiltzea)

1) Georges Weisley Bellows, *The circus* (1912)



2) Marc Chagall, *Le cheval de cirque* (1964)

3) Georges Seurat, *Le cirque* (1890)

